

Abuztuaren 11n
URTEAN ZEHARREKO 19. IGANDEA

Agurra

Kristo, Ogi bizia izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Itxaropena dugunok, bildu egin gara, lehenengo kristauak biltzen ziren moduan. Orduan, itxaropena zen kristauen jarrera nagusia: «zatoz, Jesus Jauna» otoitz egiten zuten. Gure jarrera ere izan dadila, haiena bezala itxaropentsua

Damu-otoitza

Jo dezagun Kristorengana eta aitor dezagun bekatari garela:

- Jesus Jauna, beti gure artean zaudena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, bizia ematen digun Ogi santua. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, batasunean biltzen gaituena. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Zuri Aita esateko eskubidea ematen diguzu;
 eraman bere betera gure bihotzetan
 zeure seme-alabatzako espiritua,
 hitzemaña zaigun ondarea irits dezagun.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Isiltasunean, eguneroko gauza apaletan, biziaren xumetasunean aurkitzen da Jainkoa. Konfiantzaz bizitzea eta hainbat loturatatik askatzea ezinbestekoa da horretarako.

Lehenengo irakurgaia (Jkd 18, 6-9)

Jakinduriaren liburutik

Aldez aurretik eman zitzaien gure gurasoei gau haren berri, nolako zinari sinetsi zioten garbi jakinez, haien uste ona sendo zedin. Zure herria, zintzoen salbamenaren eta etsaien hondamenaren zain zegoen. Ekintza berarekin, etsaiak zigortu egin zenituen, eta gu aintzaz bete, Zuregana deituz.

Zintzoen seme-alaba jatorrek opariak eskaintzen zizkizuten isilka; eta elkar adituta, lege santu hau ezarri zuten: bai zorionean, bai zoritxarrean, santuak elkarren lagun izango zirela; eta arbasoen abestiak kantatzen hasi ziren.

Erantzun-salmoa (Sal 33, 2-3. 4-5. 6-7. 8-9)

Bai do-ha - tsu, Jau - nak be-re oi-nor - de hau-ta -
 tu du - en he - rri - a.

Poztu zaitzete, zintzoak, Jaunagan,
 zuzenak direnei dagokie Hura gorestea.
 Bai dohatsu, Jauna Jainko duen jendea,
 Jaunak bere oinorde hautatu duen herria. R/.



Hara, Jaunaren begiak beldur diotenengana,
 Haren maitasuna itxaroten dutenengana;
 haiek baititu heriotzatik aterako,
 eta gosetean aseko. R/.

Gure bihotza Jaunaren zain dugu,
 lagun eta babes Bera baitugu.
 Betor gugana, Jauna, zure maitasuna,
 Zugan baitugu gure uste ona. R/.

Bigarren irakurgaia (*Heb 11, 1-2. 8-19*) *Utz daiteke kako arteko zatia.*

Hebrearrei egindako epistolatik

Senideok: Sinesmena, itxaroten dugunaren oinarria da, ikusten ez direnen agerpidea. Sinesmenaren bidez iritsi zuten arbasoek oroimen ona.

Sinesmenaren indarrez bete zuen Abrahamek Jaungoikoaren esana, eta atera zen ondareztat hartu behar zuen lurraldera, nora zihoan jakin gabe. Sinesmenaren indarrez bizi izan zen agindutako lurrean arrotz, erbestean bezala, txabolatan —eta berdin Isaak eta Jakob ere, agintzari beraren oinordeko zirenak—; oinarri sendo gainean ezarritako herria itxaroten zuen, Jaungoikoak eraikia eta antolatua.

Sinesmenaren indarrez hartu zuen Sarak berak ere, adina joan eta gero, haurdun izateko indarra, agintzari egin ziona leialtzat baitzeukan. Horrela, gizon betengandik —horretarako hilik zegoen batengandik, gainera— seme-alaba asko jaio ziren, zeruko izarrak adina eta itsas bazterrean dauden hondar kontaezinak hainbat.

[Guztiak sinesmenean hil ziren, agindutakorik jaso gabe, baina urrutira ikusi eta agurtuz, eta lur gainean erromes eta arrotz zirela

aitortuz; eta honela mintzo zirenek herri baten bila zebiltzala adierazten zuten. Utzi zuten herria izan balute gogoan, bazeukaten hara bihurtzeko egokiera. Baina haiek herri hobea bat bilatzen zuten: zerukoa. Horregatik, Jaungoikoak ez du haien «Jaungoiko» deitua izateko lotsarik, hiri bat prestatu zeukan eta haientzat.

Sinesmenaren indarrez Abrahamek, aztertua izan zenean, eskaini egin zuen Isaak, bere seme bakarra; eta agintzariak hartu zituenak bere seme bakarra eskaintzen zuen, hari esana bazitzaion ere: «Isaaken bidez izango duzu zeure izeneko ondorengoa». Bazekien, ordea, Abrahamek, Jaungoikoa indartsu dela, hilak ere biztuarazteko; horregatik, berriro bereganatu zuen Isaak, gerokoaren irudi bezala.]

Aleluia (Mt 24, 42a. 44)



Zaudete erne,
 uste ez duzuen ordutan etorriko zaizue eta
 Gizonaren Semea. R/.

Ebanjelioa (Lk 12, 32-48)

Homiliarako argibideak

Ikusezina ikusi balu bezala

Aldaketak azkar baino azkarrago gertatzen diren garai honetan, desagertzen ari dira lehen gizakion bizitzan egonkortasuna eta

erreferentzia eskaintzen zuten ziurtasunak. Aurrerapen guztiak edukita ere etorkizuna jakiteko eta menderatzeko gai ez garenez, egunean bizitzera etsitzen dira pertsonak, hori baita **ziurtasun** posible **bakarra**. Ez da harritzekoa fedea alde batera utzi izana, aringarririk edo kontsolamendu errazik onartzen ez duen alferrikako fardel baten edo errealitate gordinean funtsik ez duen ilusio baten modura.

Horixe da fedea, hain zuzen ere, espero dena edukitzeko modu bat, ikusten ez diren errealitateak ezagutzeko bitarteko bat (*Heb 11,1-2.8-19*). Gure garaikideen begietara, jokabide xaloa da fedezko jokabidea, eta **ilusio baten** biktima bihurtzen du bat. Freud ilusio baten etorkizunaz mintzatu zen, kristau erlijioari dagokionez. Garbi dago harentzat ilusio hori zientziak argituko duela. Hala eta guztiz ere, bizitzan osoan gara hemen fededun.

Agindutako guztia beteta ikusi gabe baina horiek ikusita eta urrutitik agurtuta fedean aurrera egin zuten garai guztietako fededun handien ereduak animatzen gaitu horretara. Abraham eta Sara ditugu bereziki **fedean guraso**, itxaropen ororen kontra itxaroten jakin izan baitzuten. Jaunaren promesek gure gurasoak Egiptoren esklabotzatik libratu zuen haren hitz ahalguztiduna dute oinarri (*Jkd 18,6-9*).

Gure lekua ez uztera eta erne egotera eramaten gaitu fedeak, baita udan eta oporretan ere, lanparak piztuta Jaunaren zain egotera, alegia (*Lk 12,32-48*). Gaur egungo kultura ez da gaueko kultura, gauez egiten dena; aitzitik, gauak egunean proiektatzen ditu bere itzala eta inkonszientzia. Kontsumismoaren munduak **zorion faltsua** saltzen duten mezuek manipula gaitzaten ahalbidetzen duen lozorro modukoa eragiten du.

Kristauak badaki azken garaia bizi dugula, hau da, behin betikoa; minutu bakoitza da baliotsua, ezin dugu alferrik galdu. Ezin dugu bizitza erdi lo pasatu, bizi besterik egin gabe. Jaunak eman digun **misioa** bete behar dugu.

Esna eta zain egoteko modu bakarra da Norbaiten aurrean arduradun sentitzea. Jainkoaren aurrean bizitzeak bakarrik eman diezaguke orainean erne egoteko gaitasuna. Inguratu eta bildu egiten gaituen presentzia erabatekoa da Jainkoa. Hor dagoen zerbaiten presentzia estatikoa da, baina. **Presentzia dinamikoa da, bizitzan eta izatean jarri eta bizitzeko beharrezkoa den energia ematen diguna.**

Gaur egungo gizakiak Jainkoa absente edo urrun dagoen, edo etortzea kostatzen zaion sentsazioa eduki dezake. Pertsona bakoitzean etortzen da Jainkoa gurekin elkartzera, ordea, gertakari bakoitzean. Gure existentziaren une bakoitza Jainkoaren betierekotasunarekin gurutzatzen da, eta **salbaziorako aukera** eskaintzen digu, bizi dugun errealitate faltsu eta iruzurreko honetatik atera gaitzaten. Errealitate horrekin konformatu behar dugu, baina, ihes egin gabe. Anti-Erregetzaren marka ugari dituen mundu honetako Jainkoaren Erreinuaren eraikitzaile garela jakin behar dugu. Eukaristiak elika dezala gure fedea, eta lagun diezagula gure lanparak piztuta edukitzen, Jauna itzuli arte.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz Kristori, hitz eman zuen bezala entzun dezan Bere izenean bildu garenon otoitza.

—Bakearen alde, Elizen arteko batasunaren alde, gu guztion zorionaren alde.

- Behartsuen alde dihardutenen alde, adinekoei laguntzen dietenen alde, ahulak zaintzen dituztenen alde.
- Nekaturik eta ezinean daudenen alde, arriskuan direnen alde, loturik bizi direnen alde.
- Gure alde otoitz egiten dutenen alde, guk otoitzean gogoan ditugunen alde, gure hildakoen betiko atsedenaren alde.

Entzun gure otoitzak, Jauna, eta egizu Abrahamen antzera gu ere bizi gaitzela bihotz sutsuz lur honetan; itxaron dezagula Zure Semearen etorrera, zerbitzaria erne aurkitzen duen nagusiak bezala aurki gaitzan eta zeruko mahaian Kristok berak gu onar gaitzan. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Hartu dugun sakramentuak salba gaitzala, Jauna,
eta sendo jarri zure egiaren argitan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**